URRIA | 2026
Sopela GUREA
www.sopelakostafest.eus



DAKIZU NORA DOAN?

¿Sabes dónde va?



Hondakinak behar bezala bereizteak uste baino onura gehiago ditu

Separar bien los residuos trae muchísimas ventajas

Hezkuntza Kontseilua eratzeko prozesua abian da / En marcha el proceso para la creación del Consejo de Educación
7 or.

EHUra joateko autobus zerbitzua linea indartu da Udalaren eskariz / Se ha reforzado el servicio de autobús para ir a la EHU a petición del Ayuntamiento
8 or.

Gatzarriñeko lanak amaitu dira / Ya han finalizado las obras de Gatzarriñe
13 or.

PREGUNTA DEL MES



¿Por qué la fachada del Ayuntamiento se iluminará de color morado del 12 al 15 de octubre?

La persona ganadora de la respuesta del mes recibirá un vale para 2 personas para venir a recibir una clase de pilates máquinas a **ANBO**, valorado en 44€.

Envía tu respuesta a: komunikazioa@sopela.eus
La persona ganadora del mes pasado: **Eva Villaro.**

BATU SOPELAKO UDALEKO WHATSAPP, TELEGRAM ETA NEWSLETTER KANALETARA!



¡ÚNETE A LOS CANALES DE WHATSAPP, TELEGRAM Y NEWSLETTER DEL AYUNTAMIENTO DE SOPELA!

SOPELAN, ZELAN DIÑOGU?

Hilabetero, Sopela Gurean, Sopelako bertoko euskara ezagutu eta ikasteko aukera izango duzue.

Cada mes, en Sopela Gurea, tendréis la oportunidad de conocer y aprender el euskera de Sopela.



TELEFONO INTERESGARRIAK/
Teléfonos de interés

UDALA
Ayuntamiento
94 406 55 00

UDALTZAINGOA
Policía Municipal
94 406 55 11

KURTZIO KULTUR ETXEA
94 406 55 05

UDAL LIBURUTEGIA
Biblioteca Municipal
94 406 55 08

KIROLDEGIA - IGERILEKUAK
Polideportivo - Piscinas
94 406 55 20

UDAL PILOTALEKUA
Frontón Municipal
94 676 44 04

GIZARTE ZERBITZUAK
Servicios Sociales
94 676 37 83

UDAL EUSKALTEGIA
Euskaltegi Municipal
94 676 31 54

KZ GUNEA SOPELA
94 403 34 06
tutor.sopela@kzgunea.net

BAKE EPAITEGIA
Juzgado de Paz
94 676 33 55

TAXI GELTOKIA
Parada de Taxi
94 676 10 03

TURISMO BULEGOA
Oficina de Turismo
94 406 55 19

CRUZ ROJA
94 410 10 10

LARRIALDIAK
Emergencias **112**

OSASUN ZENTROA
Centro de Salud
94 676 41 19

EUSKARA ZERBITZUA
94 657 92 79
www.sopelaneuskarazatseginez.com

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN URRAKETAK SALATZEKO
902 19 43 32 (Behatokia)

GENERO - BIOLENTZIA KASUETAN LAGUNTZEKO TELEFONOA
Teléfono de Asistencia sobre Violencia de Género **016**

BERDINTASUN SAILA
94 657 92 82

EUSKO JAURLARITZA
900 840 111

Eskuragarri daude Musika Eskolako ikasturte honetarako plaza batzuk

Sopelako Musika Eskolak 2026-2027 ikasturterako plaza batzuk ditu oraindik eskuragarri hainbat ikastaro eta tailerretan, bai haurrentzat, bai helduentzat.

4 urteko haurren kasuan, plaza gutxi geratzen dira Hastapen Tailerrean. Halaber, plaza batzuk daude Musika Hizkuntzako 1. mailan eta Oinarrizko Mailan, taldeak osatzeko behar den gutxieneko ikasle kopurua oraindik lortu ez delako.

Era berean, plaza libreak daude 60 urtetik gorako pertsonei zuzendutako tailerretan, goizeko zein arratsaldeko ordutegietan, baita taldeko beste irakasgai batzuetan ere, hala nola Abesbatzan eta Komboan.

Bestalde, Musika Hizkuntzako goi-mailako beste talde batzuetan ere plaza batzuk geratu dira libre. Plazak ikasleen adinaren eta mailaren arabera esleituko dira, taldeak osatu arte.

Informazio gehiago nahi izanez gero, hurbildu Musika Eskolara edo idatzi musika.eskola@sopela.eus helbidera.

La Escuela de Música mantiene abiertas algunas plazas para este curso

La Escuela de Música de Sopela mantiene abiertas algunas plazas para el curso 2026-2027 en diferentes cursos y talleres, tanto para niñas y niños como para personas adultas.

En el caso del alumnado de 4 años, quedan pocas plazas disponibles en el Taller de Iniciación. También hay plazas en 1.º de Lenguaje Musical y en el Nivel Básico, donde todavía no se ha alcanzado el número mínimo de alumnado necesario para formar los grupos.

Asimismo, quedan plazas disponibles en los talleres dirigidos a personas mayores de 60 años, tanto en horario de mañana como de tarde, así como en otras asignaturas grupales, entre ellas Coro y Combo.

También quedan plazas en otros grupos de niveles avanzados de Lenguaje Musical. Las plazas se asignarán teniendo en cuenta la edad y el nivel del alumnado, hasta completar los grupos.

Las personas interesadas pueden obtener más información a través de la Escuela de Música, o escribiendo al correo musika.eskola@sopela.eus.

Zabalik dago Sopelako Euskarazko I. Literatura Lehiaketan izena emateko epea

Aurten, lehendabiziko aldiz, Euskarazko Literatura Lehiaketa antolatu du Sopelako Udalak. Sopelako biztanleen artean euskarazko literatura sorkuntza sustatzea eta saritzea izango da lehiaketaren helburua, eta, horrekin batera, saritutako lanak ezagutaraztea. 16 urtetik gorako edonork parte hartu ahal izango du, baina, baldintza bezala, udalerrian egon beharko da erroldatuta eta deialdiko baldintzak bete beharko dira. Lanak urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira.

Abierto el plazo de matrícula del euskaltegi municipal

Este año, por primera vez, el Ayuntamiento de Sopela convoca el I Concurso de Literatura en Euskera. El objetivo de esta iniciativa es fomentar y reconocer la creación literaria en euskera entre la ciudadanía de Sopela, así como dar a conocer las obras premiadas. Podrán participar todas las personas mayores de 16 años empadronadas en el municipio que cumplan los requisitos establecidos en la convocatoria. Las obras podrán presentarse hasta el 31 de octubre.



Sopelako Udalak amaitu ditu Eleizalde kaleko komisariako erreforma-lanak eta Udaltzaingoa jada bertan dago zerbitzua ematen

Sopelako Udalak amaitutzat eman ditu Eleizalde kaleko Udaltzaingoaren egoitza nagusiko berritze-lanak. Proiektua 2025eko otsailaren amaieran abiatu zen —udaltzainak behin-behinekoz Landa Doktorea kalera lekuz aldatuz— eta 2026ko abuztuaren amaieran amaitu da. Guztira, 702.000 euro inguruko inbertsioa egin da, udaltzaingoaren zerbitzua erabat modernizatu eta herritarren zein langileen baldintzak hobetzeko helburuarekin.

Udal Gobernuak azpimarratu duenez, erreforma honek "gai hamargarren eta anbizioso bati" erantzuten dio, eta Udaltzaingoa herriaren erdigunean, Udaletxearen alboan, mantentzearen aldeko hautua berresten du. Kokapen honek funtsezko papera betetzen du herritarrekiko hurbiltasunari eusteko. Egoitza berriak eredu irekiagoa eta irisgarriagoa eskaintzen du: erakustoki eta beirate handiei esker, kanpoko argi naturala sartzen da barrualdera, ingurune atseginagoa sortuz. Horrez gain, instalazioak segurtasun-neurri aurreratuz hornitu dira beren funtzionamendua bermatzeko.

Ibilgailuen berritzea eta bio-babesa
Lanak ez dira eremu fisikora soilik mugatu. 2025ean, zerbitzuaren kalitatea indartzeko asmoz, bi ibilgailu hibrido berri erosi ziren 93.617 euroko kostuarekin. Gainera, autoen aparkalekua Akilino Arriola kaleko udal-lokaletara igaro da (7.538 euroko egokitzapenak eginez), agenteentzat irisgarriagoa den gune batera.

Bestalde, azken asteotan auto guztiak bihotz-suspertzaile (desfibrilagailu) eramangarri berriez hornitu dira (4.751,67 euro). Material honen garrantzia handia da: azken urteetan Udaltzaingoak 4 pertsonen bizitza salbatzea lortu du tresna hauei esker.

Trafikoaren eta abiaduraren kontrola
Herriko segurtasuna osatzeko, Udalak mugikortasuna eta trafikoaren kontrola hobetzeko neurri zehatzak ezarri ditu:

- **Gatzarriñeko radarra:** Ikastola parean finkatutako radarra (23.100,22 €) jarri da, gehienezko abiadura 50 km/h-koa den errepide batean batez besteko abiadura 70 km/h-koa baitzen (eta 110 km/h-tik gorako arau-hauste astunak hauteman baitziren).
- **Kamera aurreratuak eta radar pedagogikoak:** Trafiko-fluxua aztertzeko kamera modernoagoak jarri dira (12.261,49 €), eta radar pedagogikoak kokatuk dira Urgitxieta nahiz Ingestabaso kaleetan, Mugikortasun Jasangarriaren Planean ezarritako ildoei jarraituz.



El Ayuntamiento concluye la reforma de la comisaría y la Udaltzaingoa ya se encuentra en la calle Eleizalde

El Ayuntamiento de Sopela ha finalizado las obras de remodelación de la comisaría de la calle Eleizalde. El proyecto, iniciado en febrero de 2025 y concluido en agosto de 2026, ha contado con una inversión aproximada de 702.000 €. La actuación permite mantener a la Policía Local en el centro del municipio, consolidando un modelo de cercanía, accesible y eficiente.

Junto a la reforma del local, el Consistorio ha realizado otras inversiones complementarias:

- **Flota y aparcamiento:** Adquisición de dos vehículos híbridos (93.617 €) y traslado del aparcamiento a Akilino Arriola.
- **Desfibriladores:** Equipamiento de desfibriladores portátiles en los vehículos (4.751,67 €).
- **Control de tráfico y velocidad:** Instalación de un radar en Gatzarriñe junto a la Ikastola (23.100,22 €), renovación de cámaras de control de flujo vehicular (12.261,49 €) y colocación de radares pedagógicos en Urgitxieta e Ingestabaso.

Este conjunto de actuaciones refuerza la seguridad vial y el Plan de Movilidad Sostenible del municipio.

Lokaletan etxebizitzak sortzeko ordenantza eguneratuko du Sopelako Udalak

Sopelako Udalak lokalak etxebizitza babestu eta eskuragarri bihurtzeko ordenantza aldatzeko prozesua abiatu du, lurzoru berririk erabili gabe. Orain arteko araudiak ez du eskaerarik bideratzea lortu, batez ere gaur egungo esleipen-sistemak (notario aurreko zozketak) sustatzaileei eragiten dien ziurgabetasun ekonomiko eta administratiboagatik.
Aldaketaren bidez, zozketa hori ezabatu eta beste udalerri batzuetako eredu bideragarriagoak hartuko dira erreferentzia gisa, udal-kontrolari eutsiz baina prozesua erraztuz. Era berean, testua bizigarritasun-arau berrietara egokituko da.

30 egun ekarpenak egiteko
Prozesua herritarrekin batera osatzeko, kontsulta publikoa zabalik egongo da urriaren 5era arte. Ekarpenak Udalean bertan edo erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu daitezke. Ekimen honek udalerrian etxebizitza duina sustatzeko helburuari erantzuten dio.

El Ayuntamiento de Sopela actualizará la ordenanza para crear viviendas en locales

El Ayuntamiento de Sopela ha puesto en marcha el proceso para modificar la ordenanza que permite transformar locales en viviendas protegidas y asequibles, sin necesidad de consumir nuevo suelo. La normativa actual no ha logrado tramitar solicitudes, principalmente por la incertidumbre económica y administrativa que el sistema de adjudicación (sorteo ante notario) generaba en los promotores.

La modificación eliminará dicho sorteo y tomará como referencia modelos más viables de otros municipios, manteniendo el control municipal pero simplificando el proceso. Asimismo, el texto se adaptará a la nueva normativa de habitabilidad.

30 días para realizar aportaciones

Para completar el proceso de forma participativa, la consulta pública estará abierta hasta el 5 de octubre. Las aportaciones pueden presentarse en el Ayuntamiento o por registro electrónico.



Sopelako Udalak Zipiriñeko berdegunea lehengoratzeko lanak abiatu ditu

Sopelako Udalak Zipiriñeko berdegunea konpontzeko lanei ekin die, Gurasoen Elkarteak eta eskolako zuzendaritzak egindako eskaera eta proposamenei erantzunez. Jarduketa honen helburu nagusia eremu kaltetuak berreskuratzea eta hobetzea da, arreta berezia jarriz 3 urteko haurren sarrerako gunean.

Lanak udaz gozatuz egin nahi izan dira, garai hau baita egokiena parke publikoaren erabilera txikiagoa delako. Hala ere, uztailean eta abuztuan izandako tenperatura altuek eta eguzki bortitzak plangintza atzeratzera koakatu dute, landatze eta egokitze lanak oztopatu baititu beroak.

Hobekuntza hauek guztiak Udaleko lan-brigadaren eta loretzaintza zerbitzuko langileen bidez bideratzen ari dira. Udaletik eskerrak eman nahi dizkiegu langile guztiei egiten ari diren ahalegin eta lan bikainagatik, haurrek eta herritarrek gune berde hobetua izan dezaten.

El Ayuntamiento de Sopela inicia los trabajos para recuperar la zona verde de Zipiriñe

El Ayuntamiento de Sopela ha comenzado las labores de reparación en la zona verde de Zipiriñe, respondiendo a las peticiones y propuestas presentadas por la Asociación de Familias (AMPA) y la dirección del colegio. El objetivo principal de esta actuación es recuperar y mejorar las áreas deterioradas, prestando especial atención al espacio de acceso del alumnado de 3 años.

Se ha buscado ejecutar las obras en verano, por ser la época más adecuada dado el menor uso de este parque público. Sin embargo, las altas temperaturas y el intenso sol de julio y agosto han obligado a retrasar la planificación, al dificultar los trabajos de plantación y acondicionamiento.

Estas mejoras se están llevando a cabo a través de la brigada de obras municipal y el personal del servicio de jardinería. Desde el Ayuntamiento queremos agradecer a todo el equipo su esfuerzo y el excelente trabajo realizado.e.

Sopelako Udalak Hezkuntza-Kontseilua eratzeko prozesua abiatu du

Sopelako Udalak aho batez onartu du Udaleko Hezkuntza-Kontseilua sortzea, Udalaren eta hezkuntza komunitatearen arteko harremana eta elkarlana sustatzeko gune egonkor gisa. Organo honek ikastetxeen, familien, elkarteen eta herritarren ahotsak bilduko ditu, udalerriko hezkuntza-etorkizuna elkarlanean eraikitzeko.

Guruzne Carrasson alkatearen hitzetan: “Sopelako elkarteen eta herritarren ahotsa behar dugu udalerriko hezkuntzaren inguruko etorkizuna elkarrekin eraikitzeko”.

Prozesu honek, Oinherri sarearekin eta UPV/EHUrekin egindako elkarlanarekin batera, Sopela herri hezitzaile bihurtzeko urrats nagusietako bat markatzen du.

El Ayuntamiento de Sopela inicia el proceso para constituir el Consejo Municipal de Educación

El Ayuntamiento de Sopela ha aprobado por unanimidad la creación del Consejo Municipal de Educación como un espacio estable para fomentar la relación y colaboración entre el Consistorio y la comunidad educativa. Este órgano reunirá las voces de centros escolares, familias, asociaciones y ciudadanía para construir conjuntamente el futuro educativo del municipio.

En palabras de la alcaldesa Guruzne Carrasson: “Necesitamos la voz de las asociaciones y de la ciudadanía de Sopela para construir juntas el futuro de la educación en el municipio”.

Este proceso, junto con la colaboración con la red Oinherri y la UPV/EHU, supone un paso clave para hacer de Sopela un pueblo educador.



Egin daigun

Zuk bereizi, Sopelak irabazi
Tú separas, Sopela gana

egin DAIGUN
ZUK BEREIZI, SOPELAK IRABAZI
TÚ SEPARAS, SOPELA GANA

Ez da gauza bera

Hondakin guztiak ez dira berdin tratatzen, eta ez dute kostu bera. Hondakin nahasiak errefusan uzteak tratamendua garestitzen du eta baliabide gehiago behar ditu.

Aldiz, hondakin organikoak marroian ondo bereizten direnean, konpost bihurtzen dira eta lurrera itzultzen dira. Bereizketa onak ingurunea zaintzen du eta udal baliabideak hobeto erabiltzea ahalbidetzen du.

No cuesta lo mismo

No todos los residuos se tratan igual, ni tienen el mismo coste. Depositar residuos mezclados en la fracción resto encarece el tratamiento y requiere más recursos.


En cambio, cuando la materia orgánica se separa correctamente en el contenedor marrón, se convierte en compost y vuelve a la tierra. Separar bien cuida el entorno y mejora la eficiencia del sistema municipal.



NAHASTUTAKO HONDAKINAK BASURA GENERAL	ORGANIKOA ORGÁNICO
171€ /tona	**81€** /tona
Tratamendu konplexuago eta garestiagoa. Gainera, ez da baliabide bihurtzen. Mayor dificultad de tratamiento y coste público. Además, no se aprovecha como recurso	**Konpostaje tratamendua. Lurrera itzultzen da.** Tratamiento en compostaje. Vuelve a la tierra en forma de compost







Sopelan oraindik gehiena nahastuta doa.
En Sopela, la mayor parte aún va mezclada.

ZER GERTATZEN DA ORGANIKOAREKIN
QUÉ PASA CON LA ORGÁNICA



organiko hodakinak
residuos orgánicos

konpostajea
tratamiento de compostaje

bizitza lurrarentzat
vida para parques

NOLA ERABILI EDUKONTZI MARROIA
CÓMO USAR EL CONTENEDOR MARRÓN

- **Txartel pertsonala**
  Tarjeta individual por vivienda
- **Kubo + poltsa konpostagarria**
  Cubo y bolsas compostables
- **Irekiera erraza**
  Acerca la tarjeta y se abre



ONURA ZURETZAT
BENEFICIO PARA TI

20% **gutxiago tasan**
de reducción de tasa

Tasa normala	Tasa murriztua
118,10€	**94,48€**

Erabilera ona aitortzen da.
Separar bien tiene recompensa.



Zure keinuak balio du
Tu gesto cuenta

Bizkaiko Foru Aldundiak EHUra joateko Bizkaibuseko A2166 linea indartu du Udalaren eskariz

Sopelako Udalbatzak aho batez onartutako eskaerari erantzunez, Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio Zuzendaritza Nagusiak autobus gehigarri bat jarriko du Sopela (Iturrieta) eta Leioako Ikasgelategien artean, 07:55eko irteeran. Indartze-zerbitzu hau urriaren 5etik abenduaren 22ra bitartean egongo da martxan, ikasturte hasieran hauteman den autobus-saturazioari irtenbidea emateko.

Mzioa udalerriko bizilagunek eta ikasleek egindako zuzeneko eskaerari erantzunez aurkeztu zen osoko bilkuran. Izan ere, ikasturte hasieratik A2166 linean (Uribe Kosta — EHU) zegoen masifikazioaren ondorioz, gazte ugari lurrean geratzen ziren goizean goiz, batez ere Larrabasterran. Udalak berehala bere gain hartu zuen kexa hori eta Aldundiko Garraio Zuzendaritzari egoeraren berri eman zion.

Martxan urriaren 5etik

Iraileko eskaeraren bilakaera aztertu ondoren, Garraio Zuzendaritzak 07:55eko irteeran saturazioa dagoela egiaztatu du. Horregatik, honako behin-behineko neurri hauek onartu dira:

- **A2166 linea:** 07:55eko irteera indartuko da Sopelako Iturrietako geltokiaren eta Leioako EHUko Ikasgelategien arteko tartean.
- **A2161 linea:** Lanegunetan 07:25eko joaneko zerbitzua indartuko da. Gainera, arratsaldeko lehen orduan itzulerako zerbitzua sendotuko da (15:05etik 17:05era bitartean), maiztasuna 30 minututik 20 minutura igaroz.

Sopelako Udalak oso positiboki baloratu du Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzun azkarra eta lankidetza, udalerriko gazteen mugikortasun-beharrei berehalako irtenbidea emateko.

La Diputación Foral de Bizkaia ha reforzado la línea A2166 de Bizkaibus para ir a la EHU a petición del Ayuntamiento

En respuesta a la petición aprobada por unanimidad por la Corporación Municipal de Sopela, la Dirección General de Transportes de la Diputación Foral de Bizkaia pondrá un autobús adicional entre Sopela (Iturrieta) y los Aularios de Leioa, en la salida de las 07:55. Este servicio de refuerzo estará en marcha entre el 5 de octubre y el 22 de diciembre, para dar solución a la saturación de autobuses detectada a principio de curso.

La moción se presentó en el pleno en respuesta a la demanda directa realizada por los vecinos y estudiantes del municipio. De hecho, como consecuencia de la masificación que existía desde el inicio del curso escolar en la línea A2166 (Uribe Kosta — EHU), numerosos jóvenes se quedaban en tierra a primera hora de la mañana, especialmente en Larrabasterra. El Ayuntamiento asumió inmediatamente esta queja y trasladó la situación a la Dirección de Transportes de la Diputación.

En marcha desde del 5 de octubre

Tras analizar la evolución de la demanda de septiembre, la Dirección de Transportes ha verificado que existe saturación en la salida de las 07:55. Por ello, se han aprobado las siguientes medidas provisionales:

- **Línea A2166:** Se reforzará la salida de las 07:55 en el tramo comprendido entre la parada de Iturrieta en Sopela y los Aularios de la EHU en Leioa.
- **Línea A2161:** Se reforzará el servicio de ida de las 07:25 en días laborables. Además, a primera hora de la tarde se reforzará el servicio de vuelta (entre las 15:05 y las 17:05), pasando la frecuencia de 30 a 20 minutos.

El Ayuntamiento de Sopela ha valorado muy positivamente la rápida respuesta y la colaboración de la Diputación Foral de Bizkaia para dar una solución inmediata a las necesidades de movilidad de los jóvenes del municipio.



Sopelak informazio panelak berritu eta handitu ditu udalerriko jardueren komunikazioa errazteko

Sopelako Udalak herritarrek, elkarteek, kultura erakundeek edota tokiko merkatariek euren ekimenen berri emateko erabiltzen dituzten informazio panelak berritu ditu, zerbitzu publiko hori hobetzeko eta interes orokorreko informazioa zabaltzeko erabilgarri dagoen espazioa handitzeko asmoz.

Jarduketak 21.342,80 euroko inbertsioa izan du, eta egoera txarrean zeuden panelak elementu modernoago eta funtzionalagoekin ordezkatzeko aukera eman du. 18 panelak udalerriko hainbat gune estrategikotan instalatu dira.

Panelak berritzeko, jasangarritasunaren eta ekonomia zirkularraren irizpideak hartu ditu kontuan Udalak. Hori dela eta, egoera onean zeuden panelak mantendu eta berrerabiltzea lehenetsi da, beharrezkoak ez diren hondakinak **sortzea saihestuz.**

Panelen funtzionamendua

Informazio panelak ordenatuta, garbi eta erabiltzaile guztientzat eskuragarri egon daitezen, bi panel instalatu dira gune bakoitzean. Ezarritako sistemaren arabera, bi paneletako bat hilaren 1ean garbituko da, eta bigarrena, hilaren 16an. Horrela, beti egongo da espazio erabilgarri bat informazio berria jartzeko, iragarkiak etengabe berritzea erraztuz eta panelak garbi mantenduz.

Sopela renueva y amplía sus paneles informativos para facilitar la difusión de actividades ciudadanas

El Ayuntamiento de Sopela ha culminado la renovación de los paneles informativos municipales destinados a la colocación de carteles por parte de la ciudadanía, asociaciones, entidades culturales y comercios locales, con el objetivo de mejorar este servicio público y ampliar el espacio disponible para la difusión de información de interés general.



La actuación ha supuesto una inversión de 21.342,80 euros y ha permitido sustituir los paneles deteriorados por nuevos elementos más modernos y funcionales. Los 18 paneles se encuentran instalados en distintos puntos estratégicos del municipio.

La renovación de los paneles se ha llevado a cabo siguiendo criterios de sostenibilidad y economía circular. Por ello, el Ayuntamiento ha priorizado la reutilización de aquellos paneles existentes que se encontraban en buen estado estructural y funcional, evitando generar residuos innecesarios.

Funcionamiento de los paneles

Para garantizar que los espacios de información permanezcan ordenados, limpios y accesibles para todas las personas usuarias, los paneles se han instalado por parejas. El sistema establecido permite que uno de los paneles de cada ubicación se limpie el día 1 de cada mes y el segundo, el día 16. De esta manera, siempre habrá un espacio disponible para la colocación de nueva información, facilitando la renovación constante de los anuncios y garantizando unas condiciones adecuadas de limpieza.

Comercio del mes: ANBO Pilates Studio

ANBO Pilates Studio nace de la pasión de una valiente y del sueño de un loco. Somos Andrea y Borja y detrás de nuestro centro hay mucho trabajo, ganas y la ilusión de poner en marcha un proyecto propio en el lugar donde vivimos y al que sentimos tan cercano.


Hemos creado un estudio de pilates reformer, pensado para trabajar en grupos reducidos y ofrecer una atención cercana y un seguimiento personalizado. El reformer permite desarrollar fuerza, movilidad, flexibilidad, estabilidad y conciencia corporal de una forma progresiva y adaptada a las necesidades de cada persona sin importar su edad.

Queríamos que ANBO fuera mucho más que un lugar donde hacer ejercicio: un espacio donde bajar el ritmo, conectar con uno mismo y disfrutar del movimiento. Por eso hemos cuidado cada detalle para crear un ambiente tranquilo, acogedor y natural donde toda persona que entre se sienta cómoda y en calma.

Comenzar este proyecto está siendo muy especial. La acogida que hemos recibido desde antes incluso de abrir las puertas nos dió muchísima fuerza para seguir adelante.

Queremos aprovechar para dar las gracias a todas las personas que habéis confiado en nosotros desde el principio y que estáis haciendo que este sueño sea una realidad.

Esperamos que ANBO sea, durante mucho tiempo, un pequeño rincón de Sopela donde moverse, cuidarse y sentirse un poquito mejor.



Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak “Emakumeak Osasunaren Alde” programaren beste edizio bat egingo du

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak “Emakumeak Osasunaren alde” programaren beste edizio bat jarri du abian. Ekimen horren hartzaileak 25 eta 65 urte bitarteko emakumeak dira, honako ezaugarri hauek dituztenak: antsietatea, depresio sintomak edo ondoez emozionala dutenentzat, psikofarmakoak kontsumitu ala ez.

Gaur egun, familian, lanean eta gizartean dauden erantzukizunek, etengabeko estres egoerek, bizi aldaketek edo antzeko faktoreek ondoez emozionala sor dezakete. Testuinguru horretan, “Emakumeak osasunaren alde” programak tresna praktikoak eskaini nahi ditu egoera horiei modu osasungarriagoan eta kontzienteagoan aurre egiteko.

Programaren helburu nagusia emakumeen ongizate emozionala eta osasun integrala sustatzea da, eta, horretarako, autozaintza, autonomia, emozioen kudeaketa eta ahalduntzea bultzatuko dituzten baliabide pertsonalak eta komunitarioak indartzea.

Partekatzeko, ikasteko eta indartzeko gunea

Talde saioen eta dinamika parte hartzaileen bidez, parte hartzaileek beren ongizate emozionalarekin eta pertsonalarekin lotutako hainbat alderdi landu ahal izango dituzte. Programaren helburu espezifikoen artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Antsietatea eta eguneroko estresa kudeatzeko estrategiak indartzea.
- Ondoez emozionalarekin eta depresioarekin lotutako sintomak identifikatzen eta ulertzen laguntzea.
- Aurre egiteko eta autozaintzarako baliabide pertsonalak sustatzea.
- Familia, gizarte eta komunitate mailako laguntza-sareak indartzea.
- Bizitzako esparru desberdinetan harreman berdinzaleagoak eta asebetegarriagoak garatzen laguntzea.
- Ahalduntze pertsonaleko eta gizarte-partaidetzako prozesuak bultzatzea.
- Ongizate fisiko eta emozionalari laguntzen dioten bizi-ohitura osasungarriak sustatzea.

Ikastaroa urriaren 21ean hasiko da, eta asteazkenero egingo da, 16:30etatik 19:00etara, Kurtzio Kultur Etxean. Denera, doako 12 saio izango dira, 20 laguneko taldea osatuko da eta Olaia Arostegui psikologo adituak zuzenduko du.

Parte hartu nahi duten emakumeek 688 699 454 telefono zenbakian eman dezakete izena (Jurdana). Izena emateko azken eguna urriaren 14a izango da (taldea osatu aurretik, elkarrizketa egingo da).

La Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta impulsa una nueva edición del programa “Mujeres por la Salud”

La Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta pone en marcha una nueva edición del programa “Mujeres por la Salud”, una iniciativa dirigida a mujeres de entre 25 y 65 años que presentan ansiedad, sintomatología depresiva o malestar emocional, con o sin consumo de psicofármacos.

Hoy en día, factores como las responsabilidades familiares, laborales y sociales, las situaciones de estrés continuado o los cambios vitales pueden generar malestar emocional. En este contexto, “Mujeres por la Salud” busca proporcionar herramientas prácticas para afrontar estas situaciones de forma más saludable y consciente.

El programa tiene como objetivo principal promover el bienestar emocional y la salud integral de las mujeres, fortaleciendo recursos personales y comunitarios que favorezcan el autocuidado, la autonomía, la gestión emocional y el empoderamiento.

Un espacio para compartir, aprender y fortalecerse

A través de sesiones grupales y dinámicas participativas, las participantes podrán trabajar diferentes aspectos relacionados con su bienestar emocional y personal. Entre los objetivos específicos del programa destacan:

- Fortalecer estrategias para la gestión de la ansiedad y el estrés cotidiano.
- Favorecer la identificación y comprensión de los síntomas asociados al malestar emocional y depresivo.
- Potenciar recursos personales de afrontamiento y autocuidado.
- Reforzar las redes de apoyo familiar, social y comunitario.
- Favorecer el desarrollo de relaciones más igualitarias y satisfactorias en los diferentes ámbitos de la vida.
- Impulsar procesos de empoderamiento personal y participación social.
- Promover hábitos de vida saludables que contribuyan al bienestar físico y emocional



El curso comenzará el 21 de octubre y se desarrollará en Kurtzio Kultur Etxea, los miércoles de 16:30 a 19:00, a lo largo de 12 sesiones gratuitas. El grupo estará formado por 20 participantes y las sesiones serán impartidas por la psicóloga experta Olaia Arostegui.

Las mujeres interesadas pueden inscribirse llamando al 688 699 454 (Jurdana) hasta el 14 de octubre. Antes de formar el grupo se realizará una entrevista previa a las personas inscritas.

OCTUBRETT: Rett sindromea ikustarazteko eta gure elkartasuna adierazteko hilabetea

